

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Emile Larre

*Baigorri,
Nafarroa
Beherea
(1926-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Baigorriko Bastida auzoan jaio zen laborari etxe batean. 11 urte zituelarik Uztaritzeko Seminario ttipirat igorri zuten (1937) eta Piarres Lafitteren ikaslea izan zen han (eragin handia izan zuen honek Emile eta garaiko beste hainbatengan: "Lafitten umeak" deitzen ziren). Uztaritzetik Maulera igorri zuten irakasle-lagun urtebeterako (1944). Mauletik Baionako apezgaitegi nagusira (1945-52). 1951an apeztu zen, Baionan eman zuen bere lehen meza eta bere sorterrian, Baigorriin, ondokoa. Hazparnen bikario (1953), Donibane Garaziko Maiorga eskolan irakasle (1954-56), Urruñako bikario (1956-1962), Hazparneko misio-taldekide (1962-69), Aiherrako erretore (1969-80) eta Irisarrin erretore (1980az geroz) izan ditu apaiz-langintzak. Donibane Garaziko apez etxean, erretreta hartuz geroztik. Herria astekariko zuzendaria 1969tik, eta editorialista ere bai. Artikulu ugari idatzi du Gazte, Gogo, Gure Herria edo Herria bezalako agerkarietan. Euskaltzain oso izendatu zuten 1975an. Pilota eta bertsolaritza, bere beste zaletasun handiak. Bertso-jaialdi eta txapeketen antolatzaile izan da eta epaile ere bai zenbaitetan. (Bertsulari.com eta beste iturri batzuetatik jasotako informazioaz moldatutako biografia).

Zintak

BAI-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Data:** 2010-01-12
- **Iraupena:** 108 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Aire, Xan

Pasarteak

1. Emile jaio zen eguna

- **Erref:** BAI-003/002
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:01:11. **Bukatu:** 00:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Baigorri hiru eliza dira; bere familia, Bastidakoa, Urdozera joaten zen mezara. Aita faltatu izan batean "aretxeen batzen" gelditu zela esan zuen osabak, umorez. Emile Larre jaio zen eguna.</p>

2. Baigorrik hogeita bi auzo

- **Erref:** BAI-003/003
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bastida auzoa nolakoa den. Baigorrik 22 auzo ditu. Horietako batzuen berri ematen du. "Gaskoin karrika" deitzen zioten karrika bati, erdaldunak ere bazirelako.

3. Bastida eta Urdozen arteko auzolana

- **Erref:** BAI-003/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:04:52. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Urdozen zen eliza baina beren auzoak ere, Bastidak, bazuen bere nortasuna.

Urdoztarrak ikusiak ditu Bastidara auzolanera joanda. Gero ostatuan afari-merienda txikia eta mus partida egiten zuten elkarrekin.

4. Kantari ezezaguna, etxekoa

- **Erref:** BAI-003/005
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:10:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Etixeratzeko orduan, bidegurutzean, urdoztarrak eta bastidarrak kantuan aritzen ziren. Behin Emileren etxetik goxoki kantatzen zuen norbaiten ahotsa entzun zuten; ezin igarri nor zen kantaria. Etxeko semea zen, baina ez zuen sekula etxean kantatzen. Etxean lana eta lana egin da. Kantuan edo jokoan aritzea denbora galtzea zen. Horrela heziak ziren.

5. Betidanik ezagutu du argindarra

- **Erref:** BAI-003/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Betidanik ezagutu du argindarra. Nori esker azaltzen du. Oso goiztiarrak izan ziren.

6. Emile errotik laboraria

- **Erref:** BAI-003/008
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:13:14. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Errotik laboraria izan da Emile. Orain ere, Donibanen bizi delarik, baratzea du. Nola txukundu zuen abandonatuta zegoen baratzea. Tailua (sega) erabiltzen trebea izan da, hiru anaietarik onena omen zen gaztetan.</p>

7. Apaizgai baten kezkak

- **Erref:** BAI-003/009
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:18:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Apaizgai izatea erabaki zuelarik, bere buruhauste handiena zen seme nagusia izaki nola ez zuen etxeko segida hartuko. Apaizgai zelarik udako oporretan lanean aritzen zen etxean.

8. Uztaritzeko seminarioan apaizgaiak eta bestelakoak nahasi

- **Erref:** BAI-003/010
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:18:38. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Uztaritzeko seminarioan hirutik bi apaizgaiak ziren eta beste herena familia oneko semeak hara estudiatzera joanak.

9. Herri-prestakuntzarik gabe apaizten ziren

- **Erref:** BAI-003/011
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:20:06. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Latina eta greziera jota ke ikasten zuten seminarioan. Frantsesa eta humanitateak ere bai. Baina ez zuten prestakuntzarik herriarekin harremanetan jartzeko.

10. Aita Lafitte euskarazko irakasle

- **Erref:** BAI-003/012
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Pierre Lafittek latina eta greziera ematen zieten, eta eskolaz kanpo euskarazko klaseak.

11. Emileren gaztetako literatur sariak

- **Erref:** BAI-003/014
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:22:16. **Bukatu:** 00:23:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Pierre Lafittek euskarazko klaseak ematen zizkieten eskola orduz at. Idazketa sari bat irabazi zuen garai hartan Emilek. Baina ordurako bazuen beste sari bat irabazia, Euskalzaleen Biltzarrak antolatutakoa. Margerite izeneko baigorriar batek irabazi zuen eta Emile bigarren gelditu zen.

12. Lafitteren denborako apaizen euskalzaletasuna

- **Erref:** BAI-003/015
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:25:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Lafitte eta haren denborako zenbait oso euskaltzaleak ziren baina erdaraz egiten zuten beren artean eta jendearekin ere erdaraz egiteko ohitura handia zuten. Berarekin ere, Herria aldizkarian laguntzaile gisa hartu zuelarik, erdaraz gehiago egiten zuen euskaraz baino.</p>

13. Noiz hasi da euskara plazaratzen?

- **Erref:** BAI-003/016
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:25:05. **Bukatu:** 00:28:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eurek hasi ziren euskara plazaratzen. Ximun Haran eta Sarako beste pilotari batzuek pilota (Joko Luze, Errebote) txapelketa bat antolatu zuten. Haez gain, Xarriton, Bidegain, Mixel Labeguerie, Etienne Salaberry izan ziren beren ereduak. Geroxeago etorriko zen Enbata mugimendu politikoa. Lehenago ere plazaratzen zen euskara baina laborarien artean.

14. Luzaideko euskaldunak erdaraz

- **Erref:** BAI-003/017
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:28:36. **Bukatu:** 00:30:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Luzaidera joan ohi da astero hegoaldeko egunkariak eroatera, eta sufritu

egiten du. Berak euskaraz egiten du mundu guztiarekin baina ikusten du luzaidetarrak erdaraz ari direla beren artean.

15. Dantzan ikasten seminarioan

- **Erref:** BAI-003/019
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:34:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

1945-46 urteetan ibilia da bera, apaizgai zelarik, Barkoxeko plazan dantzan sotanarekin. Apaizgaiak zituzten irakasle, garaztarrak batez ere. Baionako seminarioan jolas orduan ikasgelan bertan aritzen ziren 120 lagunetik gora, berotze aldera, hotz handia egiten baitzuen.

16. Udalekuetan apaizgaiak dantza irakasle

- **Erref:** BAI-003/020
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:34:04. **Bukatu:** 00:35:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Barkoxeko plazan dantzatu izan zuten apaizgaiak. Bera ez zen joate udalekuetara, etxean lan egin behar zuelako, baina bere ikaskideek dantzan irakasten zieten udalekuetako mutil guztiei.

17. Pilotazale ere bai

- **Erref:** BAI-003/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:35:32. **Bukatu:** 00:37:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotazaletasuna ere seminarioan atxiki dute. Pilota taldea zuten eta tartean baziren oso onak, Erramuspe esaterako.

18. Ibarnegarai politikoari pilotak eskatu

- **Erref:** BAI-003/023
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:40:12. **Bukatu:** 00:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Txapelketa antolatu zuten baina pilota txarrak zituzten eta Ibarregarai-ri eskatu zizkioten; "Ministre dela famille" izan zen Petainekin, Ez zekiten deus politikaz. Honek sei pilota igorri zizkien.

19. Euskaldunek jokalekuko alderik onena

- **Erref:** BAI-003/024
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:41:22. **Bukatu:** 00:42:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Joko Luze edo errebotean aritzen ziren jolas-ordu guztietan. Bi alde ditu jokalekuak, eta euskaldunek alde onena hartzen zuten eta txarrena biarnesei uzten. Euskaldunek eskuz aritzen ziren normalean eta bestaldekoek tresnaz.

20. Pilotan ibilita gero lokartu

- **Erref:** BAI-003/025
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:42:36. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Behin, pilotan ibilita gero, lokartu egin zen eta klasea pasatu zitzaion. Irakasle biarnesarengana aurkeztu zenean ez zion errietarik egin.

21. Apaiz egin aurreko kezkak

- **Erref:** BAI-003/026
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:44:08. **Bukatu:** 00:47:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Beste garai bat zen. Orduan elizak indar handia zuen. Apaizgaia izatea ohorea zen. Dena dela, kezka beti zuten. Apaiztu aurretik astebeteko erretiroa egiten zen eman behar zuten pausoaz gogoeta egiteko.

22. Familiak bultzatutako apaizak

- **Erref:** BAI-003/027
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:47:46. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Baziren apaiztu eta berehala uzten zutenak ere. 1970tik aurrera askok utzi zuten, giroa arras aldatu zelako. Elizak ere konprenitu du hori. Familia batzuetan haurrak bultzatu egin izan dituzte apaiz izatera, amak izan du bokazioa.

23. Emileren apaiz ibilbidea

- **Erref:** BAI-003/030
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:56:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Hazparneko bikarioa izendatu zuten 25 urterekin. Oso gustura zegoen, baina Garaziko Laborantza-Eskola sortzera joateko deia izan zuen eta gogo txarrez onartu zuen. Handik hiru urtera, bikario lanera itzuli zen eta harrezkero Urruñan, Aiherran, Irisarrin eta Donibane Garazin egon da. Asko ibili da herriz herri predikari gisa.

24. Eliza harroegi ibilia da

- **Erref:** BAI-003/032
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:58:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Elizak badu indarra oraindik. Orain laikoek dute pisu asko. Eliza harroegi ibilia da eta ongi etorri zaio apaltasun amiñi bat.

25. Apaizak ezkondu ala ez?

- **Erref:** BAI-003/035
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:01:56. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Formazionean irabazi behar dute gaurko apaizek. Apaizak ezkondu ala ez?, ez du soluzioa ezkontzan ikusten. Jesu Kristoren erlijioak dena ematea eskatzen du. Protestanteak eta ortodoxoak ezkontzen dira baina hala ere badute krisia.</p>

26. Iratzederrek bezala bi jainko, jainkoa eta euskara

- **Erref:** BAI-003/036
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:04:00. **Bukatu:** 01:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Lafittek erakutsi zion euskara maitatzen. Iratzederrek esaten zuen bi jainko zituela: jainkoa eta euskara. Emilek ere berdintsu sentitzen du. Gutxi edo asko, baina gero ere izango dira euskaltzaleak.

27. Lafitte-rekin harreman aberatsa

- **Erref:** BAI-003/037
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:06:20. **Bukatu:** 01:07:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Lafitte maila handiko gizona zen, euskal gramatika eta beste obra batzuen egilea. Harekin ikasi zuen euskara maitatzen. Berak ere asko lagundu zion Lafitteri. Bera ez da izan haren mailakoa baina iraun egin du ahaleginean.

28. Euskara batuaren zailtasunak Iparraldean

- **Erref:** BAI-003/038
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:07:56. **Bukatu:** 01:10:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Borroka handia egin behar izan zuen Emilek euskara batuko ortografia Herria-n sartzeko. Bazen guztiz aurka zegoen jendea, eta baita azkarregi joan nahi zuena ere.

29. Arantzazuko Biltzarraren garrantzia

- **Erref:** BAI-003/039
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:10:02. **Bukatu:** 01:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

1968ko Arantzazuko Biltzarra oso inportantea izan zen. Gero irizpideak aplikatzean malgu jokatu beharra zegoen. Elizako testuez. Aita Martxelen Bibliaren itzulpenaz.

30. Militantziarik gabe ez ginen honaino helduko

- **Erref:** BAI-003/040
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 01:12:55. **Bukatu:** 01:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

<p>Bertsolariak asko maite ditu. Bada zenbait Xalbador eta Mattinez aparte ezer entzun nahi ez duena. Baina gero etorri dira beste batzuk, eta onak gainera. Mundu guztiak konprenitzen du bertsolarien euskara. Militantziari esker heldu gara orain gauden lekura. Beren Baigorriko etxean ilobek euskarari atxikitzen diote ikastolari esker.</p>

31. 'Herria' aldizkaria eta publizitatea

- **Erref:** BAI-003/042
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:18:46. **Bukatu:** 01:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>'Herria'k publizitatea behar du bizitzeko. Iragarki "legalak" frantsesez ipini ohi ziren. Hegoaldean euskarak laguntza instituzional handia du, Iparraldean, aldiz, miserableak. Baina emeki-emeki ari dira legezko iragarkiak ere euskaraz sartzen.</p>

32. Hegoaldeko aldizkariak 'Herria'ri irakurleak ebazten

- **Erref:** BAI-003/044
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:22:22. **Bukatu:** 01:24:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Hegoaldeko kazeta bat (Tipi-Tapa) sartua da Senpere eta Ainhoa aldean. Diru publikoz hornituak, lehia egiten diote Herriari, irakurleak ebazten dizkiote, eta gaizki iruditzen zaio. Ia diru publikorik gabe ari da euskara Iparraldean.</p>

33. Euskarak ez al du merezi diru publikorik?

- **Erref:** BAI-003/045
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:24:37. **Bukatu:** 01:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Garaziko hainbat eliza txukundu dituzte diru publikoz. Ez al da inportanteagoa euskara bultzatzeko dirua jartzea?

34. Alkhat eta Arrosagarai bertsolariak

- **Erref:** BAI-003/046
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:26:55. **Bukatu:** 01:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Emilek lan handia egin du Alkhat eta Arrosagarai bezalako bertsolariak aurrera ateratzen. Bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren aipatzen du.</p>

35. Hernandorenak antolatu zuen Urruñako bertso-saio arrakastatsua

- **Erref:** BAI-003/048
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 01:29:10. **Bukatu:** 01:34:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Euskarari nola atxiki zitzaion. Urruñara joan zen bikario. Herri euskalduna eta ederra. Hernandorena giputza Donibane Lohizunen bizi zen, haginlaria lanbidez. Emileri esan zion bertso-saio handi bat antolatzen laguntzeko, eta baita antolatu ere. 700 lagun sartu ziren 300 kabitzen ziren lekuan. Lau onenak Parisera joan ziren kantatzera Basarri, Uztapide, Xalbador eta Mattin izan ziren. Orduan sartu zen Emile bertso munduan.</p>

36. Miraria da noraino heldu den bertsolaritza

- **Erref:** BAI-003/049
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:34:08. **Bukatu:** 01:35:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Euskaltzaindiak antolatzen zituen txapelketak. Gero beste esku batzuetan utzi zuen. Mirakulua da noraino heldu den bertsolaritza.

37. 'Xalbador'ren balizko potoa eta txapelketetako gorabeherak

- **Erref:** BAI-003/051
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 01:36:18. **Bukatu:** 01:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Epaile izan zen maiz Emile bertsolari txapelketetan, Mixel Itzainarekin batera iparraldetik. Xalbadorrek emazte hilaren arropari botatako bertsoetan potoa ikusi zuen hegoaldeko zenbaitek, baina hitza ulertu ez zutelako izan zen. Uztapidek irabazi zuen txapela eta Basarri, ezustean, Xalbadorren alde agertu zen.</p>

38. Iparraldeak salbatu du urte anitzez Nafarroako txapelketa

- **Erref:** BAI-003/053
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:41:03. **Bukatu:** 01:43:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Nafarroako eta Iparraldeko bertsolariek txapelketa bakarra egin zuten urte anitzez. Nafarroan ez zen maila handirik eta Iparraldera joan ohi ziren txapelak. Iparraldeak salbatu zuen neurri batean Nafarroako bertsolaritza. Emileri fama txarra jarri zioten, iparraldekoen alde egiten zuela egotziz, eta hori dela eta utzi egin zion epaile izateari. Geroztik Nafarroako mailak gora egin du bertso-eskolei esker.

39. 'Xalbador'ren eta Mattinen ondorengo bertsolaritza, biziki zaila

- **Erref:** BAI-003/054
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:43:32. **Bukatu:** 01:44:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Ernest Alkhatek esaten zuen erreka zabaleko zubi txikia izan dela beren bertsolaritza. Xalbadorren eta Mattinen ondorengo bertsolaritza biziki zaila zen.</p>

40. Fanatismo apur bat Iparraldeko bertso-txapelketan

- **Erref:** BAI-003/056
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:45:45. **Bukatu:** 01:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Fanatismo amiñi bat ikusi du Iparraldeko bertso-txapelketan. Bazen txalo egitera bakarrik joandako jendea. Hegoaldean alimaleko indarra hartu du bertsolaritzak. Apalago dabil Iparraldean. Zenbaitek pentsatuko du Emile mundu horretan sartu zela bere burua nabarmentzeagatik baina ez da horrela. Euskaragatik ari da, eta jainkoagatik. Euskara eta jainkoa bere lema, Iratzederrek bezala.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com